

## HEZKUNTZA SAILAK BERRIZ ERE KATEGORA PREKARIZATU ETA FEMINIZATUENAK IRALETIK KANPO UTZI DITU.

Joan den astean, Hezkuntza Sailak diru partida bat iragarri zuen itunpeko ikastetxeetako irakasleak alfabetatzeko eta euskalduntzeko. **Bai, soilik irakasleak.** 0-3 zikloko langileak, hezkuntza-laguntzako espezialistak eta administrazioko eta zerbitzuetako langileak kanpoan uzten ditu, formakuntza lan orduen barruan jasotzeko aukerarik gabe.

Alfabetatzeko eta euskalduntzeko eskubiderik gabe geratuko diren kategoriak itunpeko hezkuntza-sistemako feminizatuenak eta prekarioenak dira, eta lan-ordutegitik kanpo egin beharko dute ariketa hori beraien borondatez eta beraien poltsikotik. A ze paradoxa, denboraz zein ekonomikoki zailtasun gehien izan ditzaketen kolektiboak kanpo utzi dituzte.

Ikastetxea, bertan lan egiten duten langile guztiek osatzen dute eta hezkuntzako langile ororen eginkizuna ikastetxeko haurrak heztea da, jangelan, atsedean orduan, irakastorduetan, zein besoetako haurrak hezten ari garenean. Eta, eginkizun hori guztion ardura den moduan, kasu honetan, ikastetxeak haurrak EAEko bi hizkuntza ofizialetan hezteko gaitasuna izatea ere bai. Beraz, nola uler liteke administrazioak langile batzuekiko duen utzikeria? LAB sindikatuak argi du, Eskola Eskola Publiko komunitarioa *euskalduna* izan behar da, langile guztiak proiektuaren parte izango direna, langile guztiek egiten duten lanaren aitortza izango duena eta Euskal Herritar ororen eskubideak errespetatuko dituen.

Beraz, eta LAB sindikatuarentzat eta gure ustez euskal jendartearentzat gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, zera exijitzen diogu **EAEko administrazioko Hezkuntza Sailari:** hezkuntzako langile guztiak euskalduntzeko eta alfabetatzeko beharrezko baliabideak jar ditzala. Eta beste aldetik, **Gizarte ekimeneko patronalei** euskalduntzeko konpromisoa bere gain hartzeko ere exijitzen diegu. Orain da momentua, has gaitezen gaurtik eraikitzen Euskal Eskola Publiko Komunitarioa!

**ANIMO ETA AURRERA!**